



BASERRIA XXI

BASERRIA XXI

Elkarrekin nekazaritza iraunkorra lantzen eta gizarte arazoei erantzuten



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Azken urteetan sortu den Baserria XXI ekimenak, Gipuzkoan agroekologia oinarri hartuta lanean dabiltzan baserritarrak eta lehen sektoreko langileak biltzen ditu. Elkarren arteko harremanak josteko beharra zegoela ikusita, bailaraz bailara lurra lantzen zebilen jendea topatzea eta elkartzea izan zen lehen lana.

Beste ezer baino lehen, elkar ezagutu

Lehen asanbladak elkar ezagutzeko izan ziren, batez ere: nortzuk ziren aurkeztu, zer egiten zuten azaldu... Baserritar askok hartu zuten parte hasierako asanblada horietan.

Elkarte berria sortzeko prozesua dinamizatzeko, Joxemi Zumalabe Fundazioaren laguntza jaso zuten. Antolatutako hainbat saiotan, partekatzen zituzten zailtasunak eta hutsuneak identifikatu zituzten. Bestalde, elkarrearen barruan lantaldeak osatu zituzten: desobediencia, presioa eta okupazioa, formazioa eta sareak jostea eta antolaketa ereduak eta merkaturatzea.

“Baserria XXlen funtzionatzeko modua asanblearioa da: lantalde bakoitzak ordezkariak ditu, txandakatu egiten di-

renak, eta hileroko bileran parte hartzen dute ordezkari horiek, kudeaketa lana egiteko”, kontatu du Ane Gorosabel Baserria XXI elkartearen kideak.

Urriaren 1eko hitzordua

Urriaren 1ean Donostian emandako prentsaurrekoa hitzordu garrantzitsua izan da Baserria XXI elkartearentzat, eta orokorrean Gipuzkoako lehen sektorearentzat. Herrialdeko nekazari eta abeltzainak elkartu eta taldearen aurkezpena egitea zuten egun horretako helburu kideek, lehen sektorearen aniztasuna islatuz nolabait. “Azken urteetan lehen sektorean lanean hasi garen gazteak nahiz 40 urte honetan daraman jende helduagoa, guzti horiek batzea da gure nahia”.

Lanean jarraitzeko konpromisoa azaldu zuten taldeko kideek prentsaurrekoan: “Eguneroko jardunean arituko gara, gure lur eta baliabide naturalak nekazaritza eta abeltzaintza iraunkorrerako erabil daitezten, lurrik gabekoek lurra eskura ditzaten, emakume baserritarrei dagokien garrantzia aitortzeki, herritar guztiok, baina batez ere txikienek, kalitatezko elikagaiak jateko eskubidea bermatua izan dezaten”.

Eurek dioten bezala... “Eutsi lurrari!” ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,
“mattin” Martiarena, Ainara Azpiazu,
Antton Olariaga, Zaldieroa,
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Urriak 21: Hondarribia

18:00etan, Endanea Garden Centerren
(Jaizubia auzoa 40).

Urriak 23: Bera

Lurraren Eguna Azokan.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545